

EUSKADIREN ERALDAKETA POLITIKORAKO PROGRAMA

Aurkibidea

0. EUSKADIREN ERALDAKETA POLITIKORAKO PROGRAMA	3
I. ALOR PUBLIKOA ESKUBIDEEN BERME GISA	5
1. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA	6
2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA	6
3. ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA	7
4. KULTURARAKO ESKUBIDEA	7
5. KIROLA EGITEKO ETA AISIAKO ESKUBIDEA	8
6. JUSTIZIARAKO ESKUBIDEA	8
7. INFORMAZIOARAKO ESKUBIDEA	8
8. SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA	9
9. JUSTIZIA FISKALAREN BERMEAK	9
II. EKONOMIA SOZIALA ETA BERDEA	10
10. LAN JUSTIZIAREN ETA ENPLEGU DUINAREN BERMEAK	10
11. ERALDAKETA EKOLOGIKOA ETA INDUSTRIA-EREDU BERRIA	11
12. HORIZONTE DIGITALA	14
III. ZAINKETEN GIZARTE BERRI BATERANTZ EUSKADI FEMINISTA BATEAN	15
13. ZAINKETAK GUZTION ON GISA	15
14. FEMINISMOAK ETA BERDINTASUNA	16
15. ESKUBIDE SOZIALAK	17
IV. LURRALDEA, HIZKUNTZA ETA BIZIKIDETZA	18
16. LURRALDE-EREDUA: PLURINAZIONALITATEA, AUTOGOBERNUA ETA ERREPUBLIKANISMOA	18
17. LURRALDEA ETA HIZKUNTZA	18
18. BAKEA, MEMORIA ETA BIZIKIDETZA	19
EUSKADI DEMOKRATIKOAGOA, POLITIKA GARDENAGOA	20

EUSKADIREN ERALDAKETA POLITIKORAKO PROGRAMA

2024 – 2028 legealdirako ELKARREKIN PODEMOSen hauteskunde-programa autonomiko hau euskal errealitatearen egoeraren diagnostiko baten isla da, ezkerreko ikuspegi eraldatzaile batetik.

Ezkerrari politika erabilgarriak, eraldatzaileak eta aurrerakoiak eskaintzeko ardura eskatu behar zaio, euskal gizarteari kudeaketa- eta bizikidetza-eredua berritzeko zabaltzen zaion aukera baliatu ahal izan dadin.

Horregatik, programa hau epe laburreko neurrien zerrenda batetik harago doa. Programa hau lan arduratsua eta sakona da, etorkizunari begira dagoena, Euskadin denbora luzeegian aplikatzen ari diren politikak benetan aldatzeko asmoz. Euskadiko herri-eredua benetan eraldatzeko programa. Horregatik, lau eraldaketa-ardatzen inguruko neurriak planteatzen ditugu, Euskadik behar duen sakoneko aldaketa kultural horri ekiteko funtsezkoak iruditzen zaizkigunak:

- Arlo publikoa aitortzeaz ari gara herritarren eskubideen berme gisa;
- Eredu ekonomiko sozial eta berdeaz ari gara;
- Zainketetan, berdintasunean eta inklusioan oinarrituta definitu behar den gizarte bati buruz ari gara;
- Eta, aurreko guztia bermatuko digun Euskadiren lurralde-eredu berri bati buruz ari gara.

Gaineratu behar dugu **programa hau modu guztiz kolaboratiboan egin egin dela**. ELKARREKIN PODEMOSek duela hilabete batzuk “Euskadi Berria Eraikitzen” ekimenaren birtatez bultzatu zuen prozesu parte-hartzailean izan zuen jatorria; gure militante guztiei eta euskal gizarte zibilar irekitako prozesuan. Eta, ondoren, elkarte, kolektibo, plataforma, sindikatu

eta abarren parte-hartze zabalarekin jarraitu du. Programa hau ez zen posible izango truke horiek gabe, haien ekarpenik gabe, haien proposamenik gabe... Eta borrokarik gabe.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu ideiak trukatu dizkiguten, ekarpenak egin dizkiguten eta gurekin nolabait kolaboratu duten 100 bat entitateei, eta **gizarte zibilak hurrengo Eusko Legebiltzarrean parte hartu ahal izateko tresna ELKARREKIN PODEMOS izateko konpromisoa adierazi nahi diegu.**

I. ARLO PUBLIKOA ESKUBIDEEN BERME GISA

1. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Hezkuntza Lege berria

- **Gaur egungo Hezkuntza Legea indargabetuko dugu** eta beste bat onartuko dugu, Hezkuntza Publikoa gure hezkuntza-sistemaren ardatz egituratzailea izango dela bermatzeko.
- **Titulartasun eta kudeaketa publikoko ikastetxeen sarea zabalduko dugu**, hezkuntza-etapa eta -modalitate guztietako eskolatzeko-premia guztiak estaltzeko. Arreta berezia eskainiko diogu hezkuntza goiztiarrari, 0 eta 3 urte bitarteko plaza publiko nahikoak sortuz.
- **Hezkuntza publikoaren finantzaketa legez blindatuko dugu**, eta aurrekontu-partida arian-arian handituko dugu, BPGren % 7 lortu arte, UNESCOk gomendatzen duen bezala.
- **Irakaskuntza publikoaren doakotasun osoa bermatuko dugu**, lehen haurtzarotik Unibertsitateraino, eta behar adina baliabide jarriko dugu, material didaktikoak, liburuak, jantoki-zerbitzua eta eskola-garraioko zerbitzua barne, baita egoitza-bekak edo behar duten ikasleentzako soldata-bekak ere.
- **“Borondatezko kuotak” gaizki deiturikoak kobratzeari amaiera emango diogu**, eta Legeak itunak ezartzeko eskatzen dituen gainerako baldintzak bermatuko ditugu. Hezkuntza-itunak aniztasuna onartzeko gutxieneko konpromiso batzuekin lotuko ditugu.
- **Hezkuntza-itunak apurka-apurka ezabatzeko bidea egingo dugu**, itunpeko ikastetxe pribatuak ikastetxe publikoen sare bakar batean borondatez eta negoziatuta integratuz, irakasleak integratzeko eta homologatzeko neurriak hartuz.
- Euskal Hezkuntza Sistemari **eskola-segregazioaren aurka borrokatzeko estrategia zabalduko dugu**. Onarpenari, hezkuntza-itunei eta zuzendaritzari buruzko dekretuak aldatuko ditugu.
- **Egungo hizkuntza-ereduen esparrua gaindituko dugu, euskara ardatz izango duen eredu eleaniztun baterantz**, ikasleak hizkuntzen arabera sailkatu zein banatuko ez dituen, hizkuntzen translinguistismoa, transferentziak eta hizkuntzak ikasteko metodologia berriak praktikan jarriko dituen.

2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Osakidetza berreskuratuko dugu!

- **Osasun publikoa aurrekontuetan blindatuko dugu**, osasunean egindako inbertsioa handituz, BPGren % 7ra iritsi arte, EBko herrialde aurreratuenen ildotik. Osasun-arloko inbertsio-mailak handituko ditugu, Osakidetzaren finantzaketa handituz.
- Azken urteetan **pribatizatutako osasun-zerbitzuen despribatizazioa sustatuko dugu**.
- **Osasun-langileen lan-baldintzak hobetuko ditugu**, plantillak egonkortuz eta bitartekotasuna murriztuz.
- Osakidetzaren prestazioen artean **aho-hortzetako, oftalmologiako eta entzumeneko osasunaren doako estaldura** sartuko dugu, eta lehen mailako arretako zentroetan podologia-zerbitzua sartuko dugu.

Fokua lehen mailako arretan

- Lehen Mailako Arreta berreskuratu behar dugu. Horretarako, indartu egingo dugu (familiako medikuak eta pediatriak), **langile-plazak handituz** eta egungo arreta-ratioak murriztuz, eta gaixotasunagatiko edo oporregatiko bajetan ordezkapena bermatuz.
- **Lehen Mailako Arreta indartuko dugu** osasun-sistemaren ardatz gisa, eta talde eta langile horiei kudeaketa-autonomia handiagoa eta ebazteko gaitasun handiagoa emango diegu, horrela herritarren osasun-arazoen % 80 konpon baititzakete.

Emakumeen osasuna

- Ikuspegi feminista duen osasun-sistemaren alde egingo dugu, eta **sexu- eta ugalketa-eskubideak osasun-sisteman sartuko ditugu**.

Osasun mentala

- Osasun Mentaleko arretaren zeregina sendotuko dugu, **Osasun Mentalari buruzko lege espezifiko** baten bidez. Osasun Mentaleko Sareak eskaintzen duen asistentzia-maila optimizatuko dugu, eta sarearen baliabideak lehen mailako arretako baliabideekin koordinatuko ditugu, batik bat nahasmendu mental arrunten edo ez hain larrien jarraipenean.

Nahasmendu mental larriko kasuetarako maila guztietako asistentzia jarraitutasuna lortzearen alde egingo dugu.

3. ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA

Etxebizitza Legea aplikatuko dugu Euskadin

- **Alokairuko etxebizitza publikoen kopurua handituko dugu**, Euskadiko etxebizitza guztien % 4ra iritsi arte, gutxienez.
- **Putre funtsen partaidetza duten enpresei** eta bigarren etxebizitza baten bila dabiltzan atzerritarrei **etxebizitza erostea mugatuko diegu**.
- **Alokairuen prezioak mugatuko ditugu** tenkatutako eremuak ezarriz.
- **Tenkatutako eremuetan alokairu turistikoko etxebizitzak debekatuko ditugu**.
- **Hutsik dauden etxebizitzak premiaz mobilizatuko ditugu**, birgaitzeko eta alokairu eskuragarrian jartzeko.
- Hipotekak eta alokairua ez ordaintzeagatiko **Etxegabetzerik Gabeko Erkidego gisa deklaratu dugu Euskadi**, bizileku-alternatibarik gabeko etxe kalteberik gabeko erkidego gisa.

4. KULTURARAKO ETA ONDASUNERAKO ESKUBIDEA

- **Sektoreko mahai** bat deituko dugu kultura-eragileekin, kultura-elkarteekin, bitartekariekin, erakundeekin eta enpresekin, gure herri gisa aurrera egiteko funtsezkotzat jotzen dugun eta erantzun gabeko eskaera gehiegiri premiazko arreta ematea eskatzen duen sektore baten premiei aurre egiteko.

5. KIROLA EGITEKO ETA AISIAKO ESKUBIDEA

- Kirolaren sektore profesional eta ez-profesional guztietan **berdintasun erreala eta eraginkorra bultzatuko dugu, eta desberdintasunak zuzenduko ditugu genero-eragineko neurriak hartuz:**
 - Emakumeek kirol-arloan parte hartzea sustatu eta bultzatuko dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria sinbolikorik gabeko kirol-ekitaldiei buruzko neurriak proposatuko ditugu.
- **Ikastetxeetan jarduera fisikoa sustatuko dugu**, motorrik gabeko joan-etorriak sustatuz ikastetxetik eta ikastetxera, eskolaz kanpoko orduetan jarduera fisikorako aukera gehiago eskainiz eta jolastoki eta atsedeen aktiboak dinamizatuz, eta **dibertsitate funtzionala duten ikasleentzat estrategia espezifikokoak ezarriz**, bai jarduera fisiko arruntan sartzeko, bai jarduera fisiko diferentzialerako.

6. JUSTIZIARAKO ESKUBIDEA

- **Doako Justiziarako sarbide unibertsalean** sinesten dugu, defendatu behar dugun oinarrizko eskubide gisa ulertuta, eta, beraz, herritarrentzako doako prestazioaren atalasea handituko dugu.

7. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA

- **EiTBren eredua eraldatu** beharra aztertuko dugu, bai Europako estandarrekin homologatu ahal izateko, bai herritarrek behar duten zerbitzu publikoa izan ahal izateko: independentea, plurala eta kalitate, berrikuntza eta onura publikoko irizpideen arabera ekoizpen propioko edukiak dituen.
- **Fake News Lege** bat sortuko dugu gaur egun ematen den desinformazioaren aurka borrokatzeko. Desinformazio horrek sortutako “irabaziaren” nozioan zentratuko da, demokraziarentzat arriskutsua izateagatik baita ezaguna.

8. SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA

- **Segurtasun-politiken eraginkortasuna** kontrastatuko dugu, eremu guztietan, egiaztatutako auditorien eta azterlanen bidez, agentzia independenteen inplikazioarekin, bereziki **“Giza Eskubideetan oinarritutako ikuspegia” kontuan hartuta.**
- **Soilik egoera irregularrean egoteagatik etorkinak helburu dituen edozein polizia-operatibo ezabatzea** ezarriko dugu.

9. JUSTIZIA FISKALAREN BERMEAK

- **Zerga-sistemaren progresibotasuna** areagotuko dugu, **aberastasunaren birbanaketa eta aukera-berdintasuna bultzatuz eta dinamismo ekonomikoa ziurtatuz.** Euskadik, Madrilekin batera, Estatuko zerga-presio txikiena duen erkidegoa izateari utzi behar dio.
- **Iruzur fiskalaren aurkako borrokaren** emaitzak hobetzera bideratutako neurriak areagotuko ditugu.
- **Zerga progresiboak ezarriko dizkiegu robotika edo adimen artifiziala erabiliz automatizazioa aukeratzen duten eta langileen kaleratze esanguratsuak eragiten dituzten enpresei.** Zerga horiek lan-birziklapenerako, etengabeko prestakuntzarako eta kaleratutako langileen laneratzeko programetara bideratuko dira, bai eta gorabidean dauden sektoreak eta teknologiako enplegu intentsiboko sektoreak indartzera ere.

II. EKONOMIA SOZIALA ETA BERDEA

10. LAN JUSTIZIAREN ETA ENPLEGU DUINAREN BERMEAK

- Etorkizuneko apustu gisa **enplegu berdea sustatzeko Plan Estrategiko** bat egingo dugu, partaidetza komunitarioa duten prestakuntza- eta enplegu-sorkuntzako programak abian jarri. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu “enplegu berdea” zer den zehaztea: baldintza eta soldaten araberako enplegu duina, gure gizartearen eta ingurumenaren iraunkortasuna sustatzen duena.
- **Zaintza sektore feminizatueta, hala nola egoitzetan edo etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan, lan-prekarietatearen aurkako Talka Plana** jarriko dugu abian.
- Gehienez 34 orduko lanaldia ezartzea bultzatuko dugu, soldata-murrizketarik gabe.
- Langile publikoen plantillak finkatuko ditugu, bitartekotasuna % 8ra murriztuz.
- **“Lehen Aukera” programa** berrituko dugu: Euskadiko enplegu-estrategia birpentsatu behar dugu, euskal gazteen etengabeko prekarietate-dinamikak desagerrarazteko. Baldintza batzuk birformulatuko ditugu (hala nola enplegatutako 6 hilabeteko gehieneko kopurua, edo prestakuntza-kontratu edo praktika-kontratu bidezko kontratazioa).
- **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eremuan ekintzailera sustatuko dugu**, ibilbide, programa eta tresna bereziak sortuz eta publiko espezifikoak hartuz (emakumeak, etorkinak, gazteak, etab.).
- **Kooperatiba mistoen garapena** identifikatu eta bultzatuko dugu, erakunde publikoen, ekonomia sozial eta solidarioko enpresen eta herritarren partaidetzarekin, **sektore estrategikoetan** (energia, mugikortasuna, tokiko elikadura eta elikadura ekologikoa...).
- **Tokiko merkataritzari laguntzeko eta bultzatzeko plan** bat egingo dugu, **tokiko merkatariekin eta haien erakundeekin** nahitaez egindako diagnostiko partekatu batetik abiatuta.
- Legea betetzen dela zainduko dugu **merkataritza-gune berrien ezarpena mugatzeko, eta megaproiektu komertzial periferikoak behin betiko geldiarazteko lan egingo dugu.**

11. ERALDAKETA EKOLOGIKOA ETA INDUSTRIA EREDU BERRIA

Trantsizio energetikoa

- **Energiaren Euskal Enpresa Publiko (EEEP)** bat sortzearen aldeko apustua egiten dugu, eredu energetiko iraunkor eta deszentralizatu baterako trantsizioa gidatzeko, energiarako bidezko sarbidea bermatuz eta sorkuntza banatua eta autohornikuntza sustatuz. EEEP gure tresnarik onena da Euskadiren subiranotasun energetikoan eta krisi ekologikoaren aurkako borrokan aurrera egiteko, merkatu elektrikoan lehia sortzeko, 2045erako 9.000 MW energia ekoizteko eta elektrizitate berriztagarria prezio lehiakorretan merkaturatzeko.
- Enpresa publiko horren helburua izango da, halaber, **energia berriztagarrien arloan teknologia berritzaileak ikertzea eta garatzea, bai eta energia-eraginkortasuneko eta emisioak murrizteko proiektuetan inbertitzea ere.**
- **Elektrifikazioa** sustatuko dugu **funtsezko sektoreetan**, hala nola garraioan, industrian eta etxebizitzan.

Trantsizio agroekologikoa

- Balio Estrategiko Handiko lurzoruak legez blindatzea proposatzen dugu, nekazaritza-kalitatea edo -erabilera arriskuan jartzen duten jarduera-mota jakin batzuk mugatzen edo debekatzen dituzten araudiak ezarriz, eta **Balio Agrologiko Handiko Lurzoruak eta Nekazaritza Intereseko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruak Babesteko Legea** aurrera eramanez.

Naturaren kontserbazioa

- ✓ Beharrezkotzat jotzen dugu **Klima Aldaketaren aurkako Ekintzari buruzko Euskal Legea funtsean aldatzea**. Asmo handiagoko lege bat behar dugu, oligopolio energetiko handien interesetara makurtuko ez dena.
 - **Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murrizteko helburu are anbiziotsuagoak** ezarriko ditugu, 2030erako % 70eko murrizketa aurreikusiz, klima-alaketari buruzko azken txosten zientifikoaren ildotik.
 - **Klima-aldaketa egokitzea sustatzeko neurri espezifikoak** txertatuko ditugu, **komunitate ahulenak babestuz** eta azpiegitura eta ekosistemen erresilientzia indartuz muturreko inpaktu klimatikoaren aurrean.

- **Biodibertsitatearen galera-krisia eta elikagaien krisia kontuan hartuko ditugu,** eta neurriak ezingo dira inoiz naturaren kontserbazioaren kalterako izan, ezta balio agrologiko handiko lurzoruen galeraren eragin ere.
- **Arabako Lurralde Historikoa UNESCOren Biosfera Erreserba** izendatzeko izapideei ekingo diegu.
- Urdaibaiko padura eskubideen pertsona juridiko titular deklaratu dugu eta Guggenheim-Urdaibai proiektua behin betiko baztertu dugu.

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza

- **Tokiko ekoizpena eta elikagaien aniztasuna kanpoko merkataritza-interesetatik babesten dituzten nekazaritza-politikak** defendatuko ditugu.
- Konpromisoa hartzen dugu **Euskadin Elikatze Katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei** buruzko abenduaren 14ko 16/2021 Legea benetan betetzen dela bermatzeko. Lege hori funtsezkoa da nekazariak eta ekoizleak babesteko, bideragarritasun ekonomikoari kalte egiten dioten praktika bidegabeen aurrean, hala nola galduzko salmenten aurrean. Legediaren aplikazio zorrotza sustatu dugu, elikatze-kate osoan bidezko prezioak errespetatzen direla ziurtatzeko. Eta funtzionatzen ez duela erabakitzen bada, aldaketa aldarrikatu dugu.

Ura, zarata, airea, hondakinak

- **Airearen** kalitatearen eta emisioen murrizketaren helburuak betetzeko adinako azalera duten **Emisio Txikiko Eremuak** ezarriko ditugu (baina ez bakarrik hiriguneetan, baita bereziki kutsatuta dauden eskualdeetan edo beren ingurumen balioagatik babesa merezi duten eskualdeetan ere).
- **Zabortegien eta hondakinak biltegiratzeko beste instalazio batzuen kudeaketa publikoaren alde** egiten dugu; instalazio berrien zein irregulartasun larriak eta/edo jarraituak detektatu diren instalazioen kudeaketa publikoaren alde ere.

Industria eredua

- **Industria iraunkorraren, trantsizio energetikoaren eta ekonomia zirkularraren aldeko Euskal Ituna** bultzatuko dugu.
- **Industria-sektorea deskarbonizatzeko** neurri zehatzak ezarriko ditugu, prozesuen elektrifikazioa, ekonomia zirkularraren sustapena, eraginkortasun energetikoa eta industria berde baterako eraldaketa barne, 2045erako berotegi-efektuko gasen emisioak % 75 murrizteko helburuarekin.
- **Ikerketara eta berrikuntzara bideratutako finantzaketa pixkanaka handituko dugu**, I+G+Be bideratutako BPGren % 3ko helburua lortu arte.
- **Sektore publikoko finantza-baliabideak eta baliabide teknikoak bideratuko ditugu sektore estrategikoetan inbertsioa** bultzatzeko, garapen ekonomikorako funtsak eta berrikuntza eta inbertsio produktiboa sustatzeko programak sortuz, eta interes estrategikotzat jotzen diren euskal enpresetako parte-hartze instituzionala erraztuko dugu, haien gaitasun lehiakorra eta eskualde-garapenari egiten dioten ekarpena indartzeko helburuarekin.
- **Abandonatutako industria-lurzuak deskontaminatzeko eta birgaitzeko neurriak** ezarriko ditugu, eta horiek berrerabiltzea sustatuko dugu, ingurumena errespetatzen duten enpresa berritzaileak instalatzeko.

Garraioa eta mugikortasuna

- Garraio-eredua erabat aldatu behar dugu beste eredu bat garatzeko, desplazamendu-beharrak murriztuko dituen eta elektrifikatutako garraio kolektiboaren (autobusak eta ohiko trena) erabileran oinarrituko dena, eta hiri-desplazamenduen kasuan, oinez eta bizikletan oinarrituko dena. **Garraio aktiboaren erabilera sustatuko dugu, hala nola bizikleta eta oinezkoen garraioa**, azpiegitura seguruak sortuz eta hiri-mugikortasun iraunkorreko politikak ezarriz.
- Garraio txartel bakar baten aldeko apustua egingo dugu Euskadi osorako, 26 urtetik beherakoentzat eta erretiratuentzat doakoa, eta garraio publikoan deskontuaren % 50 mantenduko dugu, deskontu hori handituz joateko asmoz.

Animalien babesa

- Eusko Jaurlaritzaren organigramaren barruan eta Lehendakaritzaren mende, **Animalien Ongizaterako eta Babeserako Zuzendaritza Nagusia** sortuko dugu. Hori behar bezala kudeatzeko, **Animalien Ongizaterako eta Babeserako Kontseilua** sortuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko animalien babeserako eta defentsarako erakundeek eta animalien ongizatean eta babesean espezializatutako pertsonen osatutako etengabeko aholkularitza-organo gisa.
- Animaliei beharrezkoa ez den sufrimendua eragiten dieten praktikak debekatuko ditugu, hala nola zezenketak eta animalien aurkako tratu txarrak eragiten dituzten beste entretenimendu modu batzuk.

12. EKONOMIA BERRIA ETA HORIZONTE DIGITALA

- Zerbitzu publikoak modernizatuko ditugu **gobernu elektronikoko konponbideak** ezarriz, **online izapideak eta zerbitzuak erraztuz, eraginkortasun administratiboa** eta herritarren gogobetetzea **hobetzeko**.
- **Adimen Artifiziala arautzeko Lege** bat egingo dugu, Euskadin merkaturatu eta erabilitako IA sistemetan Europar Batasunaren oinarritzko eskubideen eta balioen segurtasuna eta errespetua bermatzeko.
 - **Euskaltel Telekomunikazio Enpresa Publiko gisa berreskuratuko dugu**, Interneterako sarbidea ziurtatzeko, prezioak murrizteko eta enplegu publikoa hornitzeko.

III. ZAINKETEN GIZARTE BERRI BATERANTZ EUSKADI FEMINISTA BATEAN

13. ZAINKETAK GUZTION ON GISA

- Apustu sendoa egingo dugu **EAEko egoitzak publiko bihurtzearen** alde. Egoitzak euskal sistema soziosanitario publikoaren barruan sartzeko lan egingo dugu. Horrek lotura izan behar du lehen mailako arreta langile gehiagorekin eta baliabide gehiagorekin indartzeko gure proposamenarekin; izan ere, azken horrek bere gain hartu behar du, era iraunkorrean, egoitzetako osasun-arretaren ardura.
- **2030 Zainketen Euskal Itun handia** sustatuko dugu, mugimendu feministarekin eta gizarte zibil antolatuarekin izandako epe luzeko elkarrizketa sakonetik abiatuta. Itun handi horretatik abiatuta:
 - **Zainketen Euskal Sistema publiko, doako, integral, integratu eta unibertsal** bat jarriko dugu martxan, pertsona guztiek zainketa-eskubidea balia dezaten, maite ditugun pertsonen zaintza duinak ematearen kostu handiak eta lan-zamak familien gain gera ez daitezen.
 - **‘Elkarrekin Zaintzen’ proiektua bultzatuko dugu, zainketen edo profesionalen lanak demokratizatzeko eta banatzeko.** Zaintza sozialki antolatzeko beste modu baten aldeko apustua egitea da kontua, ikuspegi eraldatzaile eta erantzunkide batetik. Plana diseinatu eta abian jartzeko, eztabaida sakon, eskuzabal, publiko, ireki eta anitza bultzatuko da, honako hauen parte-hartzea barne hartuko duena: instituzioak, inplikaturako gizarte-eragileak, zainketa-zerbitzuen erabiltzaileak, senideak eta zaintza profesionalak eta ez-profesionalak ematen dituzten pertsonak, eta, batez ere, emakumeen erakundeak eta mugimendu feministaren parte-hartzea, oro har.
 - **Zaintza sektore feminizatueta**n (egoitzak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta etxeko langileak) **lan-prekarietatearen aurkako Talka Plana** jarriko dugu abian.
- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua berriz definituko dugu. Aurrerantzean, **Etxeko Zainketen Zuzeneko Arreta Zerbitzua** izango da, mendekotasun-maila guztiak artatuko dituen, eta, aldi berean, zaintzaileei kalitatezko zainketak eta atsedenaldiak bermatuko dizkiena.

14. FEMINISMOAK ETA BERDINTASUNA

Emakunde Lehendakaritzara berratzikiko dugu. Berdintasun-politikek zeharkakoak eta lehenentasunezkoak izan behar dute, eta hori horrela izan dadin, Emakundek posizio nagusi bat izan behar du exekutiboan, politika publiko guztietan eragin ahal izateko.

- **‘Indarkeria matxistarik gabeko Euskadiren aldeko Euskal Ituna’** sustatuko dugu, helburu hauekin:
 - Erakundeen arteko koordinazioa maila guztietan, indarkeria matxistaren biktimen arretaren, prebentzioaren eta babesaren esparruetan.
 - Baliabide ekonomiko, estruktural eta giza baliabide nahikoak ematea.
 - Indarkeria matxistak desagerraraztearekin lotutako Eusko Jaurlaritzaren politiken helburuen betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa erraztea.
 - **Landa-eremuko indarkeria matxistak eta adineko emakumeak prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko neurri zehatzak** jorratuko ditugu.
- **Berdintasunerako Legearen** erreforma onartu ondoren, **adi egongo gara arau bidez garatzen dela egiaztatzeko, eta legearen edukiaren aplikazio eraginkorra kontrolatuko dugu.**
- **Gorrito-delituen eta LGTBIfobiaren aurkako kanpaina gehiago** garatuko ditugu **gizarte-eremu guztietan**, bereziki hezkuntza-, kultura-, aisialdi- eta kirol-esparruetan.
- **Beren identitate edo orientazio sexualagatiko diskriminazioaren eta bazterketaren ondorioz beren bizilekuetatik ihes egin duten pertsona guztiei** doako laguntza publikoa bermatuko diegu.
- Onartu berri den Trans Legean aipatzen ez diren **pertsona ez-binarioen nortasun-aitorpena** eskatuko dugu.

15. ESKUBIDE SOZIALAK

- Kontingentzia eta estaldura guztietan gizarte-politiken aurrekontua handituko dugu.
- **Dauden eta sortu berri diren laguntzak eskuratzea erraztuko dugu, beharrezkoak ez diren traba burokratikoak kenduz**, sistema zentralizatuekin eta eskuragarriekin, bai online modalitateetan, bai modalitate fisikoetan, **eta auzoko leihatila bakarrak sustatuko ditugu, herritarrei arreta pertsonala emateko.**
- **Gazteen emantzipazio-sarea eta gazteen emantzipaziorako estrategia** jarriko ditugu abian.
- Egungo Eusko Jaurlaritzak lantzen duen familiaren eta bizikidetza-unitatearen kontzeptua birplanteatuko dugu, **familia- eta bizikidetza-eredu berrien errealitatea txertatuz**, neurri horiek guztiak guztientzat zabalgarriak, eskuragarriak eta egokiak izan daitezen.
- **Auzotasun Agiriaren** aitorpenaren inplementazioa bultzatuko dugu, gure lurraldean bizi diren pertsona guztiek egoitzak ematen dizkien eskubide eta zerbitzuetarako sarbidea bermatuta dutela ziurtatzeko.
- **Harrerako Euskal Sistema** jarriko dugu abian, migratzaileentzako informazio- eta aholkularitza-zerbitzu espezifikoekin eta arreta pertsonalizatuarekin eta integralarekin.
- **Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentarako** ekimena babesten dugu, pobreziaren aurkako borrokaren egungo eredua errotik aldatzeko. Botere publikoek herritar guztiei bermatzen badiete bizitza duin baten proiektua gauzatzeko aukera emango dien diru-sarrera bat, jatorrizko pobrezia ekonomikoa bertan behera uztea lortzeaz gain, askatasun-baldintzak sortuko dira pertsona guztiek, beren bizi-proiektua planteatzeko garaian, bizirik irautea bermatzeko baliabide ekonomikoak beste batzuen mende egon behar izan gabe lortzeko. Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentak **unibertsala, indibiduala eta baldintzarik gabekoa** izan behar du (diru-sarrerak, ondasunak, enplegua...), eta Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuek finantzatu behar dute. Horren zenbatekoak, gutxienez, diru-sarrera txikien atalasea estaliko du, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak, Eurostatek, definitzen duen bezala.
- **Erakunde publikoen eta Hirugarren Sektore Sozialeko sare eta erakundeen arteko elkarrizketa erreala eta eraginkorra indartuko dugu, bai eta lankidetzaren ere**, gizarte zibilararen solaskide legitimo gisa, politika publikoen diseinu, jarraipen eta ebaluazioari begira.

IV. LURRALDEA, HIZKUNTZA ETA BIZIKIDETZA

16. LURRALDE EREDUA: PLURINAZIONALITATEA, AUTOGOBERNUA ETA ERREPUBLIKANISMOA

- **Euskadi nazio gisa hartzea babesten dugu, Espainia estatu plurinazional eta eleaniztun gisa eratzearen alde egiten dugun apustuarekin bat etorriz.**
- **Estatu federala edo konfederala proposatzen dugu, herritarrek Estatuko buruzagitza zuzenean aukeratu ahal izan dezaten**, herritarren parte-hartzea eta eremu guztietako erabakietan parte hartzeko duten eskubidea errespetatuz eta sustatuz, instituzionaltasuna ulertzeko modu berri bat artikulatzen duen oinarrietako bat baita. **Gure etorkizuna, beti errepublikanoa.**
- **Erabakitzeko eskubidea legez eta modu itundu batean aplikatzea** bultzatuko dugu, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren barruko negoziazio- eta akordio-esparru batean benetan baliatzea.
- **Gernikako Estatutua osorik betetzea eta egiteko dauden transferentziak eskualdatzea** eskatuko dugu, baina haratago joan nahi dugu, Euskadik bere lurralde-estatusari buruzko itun sozial eta politiko berri bat behar duela ulertuta.
- Horregatik, **Autogobernuari buruzko ponentzia** irekiko dugu, Estatutu berri bat lortzeko, identitate aniztasuna onarri hartuta gai garrantzitsuenetan fokalizatua, hau da, euskal herritarren eskubide sozialak eta ongizate materiala lehenengo lekuan jartzea.

17. LURRALDEA ETA HIZKUNTZA

- Denontzako euskara sustatuko dugu, **C1era arte euskara doan ikasten dela** ziurtatuz.
- **Euskaltegiko moduluak eskainiko ditugu, titulu bat lortzetik haratago doazenak** eta beste helburu informalagoak dituztenak.

18. BAKEA, MEMORIA ETA BIZIKIDETZA

- Israelgo Estatuarekin harremana duten euskal enpresen esportazioak debekatuko ditugu.
- Mendebaldeko Sahararen determinazio askearekiko nazioarteko konpromisoari lagunduko diogu. Euskadiren nazioarteko presentziak Mendebaldeko Sahararen eta sahararren giza eskubideak gainbegiratzen, errespetatzen eta defendatzen lagun dezan bultzatuko dugu. Aldi berean, **laguntza humanitarioko partidak handituko ditugu sahararren kanpamenduetarako, eta sahararren prestakuntza- eta mugikortasun-programak babestuko ditugu.**

EUSKADI DEMOKRATIKOAGOA, POLITIKA GARDENAGOA

- **Gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko Legearen onarpena bultzatuko dugu.** Legealdiaren amaierarako utzi da lege hori, eta hauteskunderen deialdiak geldiarazi du haren izapidea. Erabakiak hartzerakoan herritarren parte-hartzea sustatu eta bermatuko duen lege bat behar dugu, interes orokorreko gaietarako erakunde-maila guztietan erreferendumen sistema legez sustatzea barne.